

B E U S K A R A R E N B E R R I P A P E R A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Euskararen erabilera bultzatzeko hitzarmenak

Orain dela hiru urte sinatu zen Euskal Herrian euskara herri mailan bultzatzeko lehen hitzarmena. 1990eko martxoaren 28an Arrasateko 38 elkarteak eta enpresak euren artean euskaraz egiteko borondatezko konpromezu publikoa elkarri agertu zioten. Hiru urte igaro eta gero 92 dira Arrasaten bertan (25.000 bizilagun) konpromezua sinatu duten elkarteak. Era honetako hitzarmenak zabalduz doaz Euskal Herrian zehar. Bergaran (15.000 bizilagun), Tolosan (18.000 bizilagun) eta Ondarroan ere (11.000) antzerako hitzarmenak sinatu dira.

Herritik herrira aldatu egiten dira hitzarmenaren edukia eta konpromezu mailak. Arrasaten

enpresa eta elkarten artean planteiatu zuten. Bergaran, aldiz, gazteek euskara gehiago erabil zezaten. Ondarroan, ostera, kale giroa euskaldundu guran.

Kasurik gehienetan jarraipen batzorde bat eratzen da, hitzarmenaren nondik norakoak aztertzeko. Zenbaitetan, gainera, teknikari bat jarri da hitzarmenari indarra eman eta sor litezkeen arazoak konpontzeko.

HPIN hasieratik izan da euskararen aldeko hitzarmengintza honetan tokian tokiko herri-aginte eta herritarrekin batera. Hernani, Oñati eta Urretxu bezalako herrietan laster sinatuko dira era horretako hitzarmenak.



Telefono zitak euskaraz

"Telefono zita, arratsaldeon!" esaten du emakume ahots batek telefonoz bestaldean. Errentaren aitortpena egiteko Gipuzkoako eta Arabako foru aldundiek jarri duten telefono bidezko zita da. Lehen aldiz, arabarrek eta gipuzkoarrek aukera dute telefonoz deitu eta, horrela nahi izanez gero, zita euskaraz egiteko.

Natural Vox Gasteizko enpresak garatu du sistema hau. Urtebete t'erdian programatzaile, ingeniari eta hizkuntzalari talde bat burubelarri ari izan da operatzailerik gabeko telefonia elkarreragilea antolatzen. Lehendabizi gaztelaniazko eta katalanezko bertsioak prestatu zituzten.

Euskarazkoa paratzeko, Donostia, Iruñea eta Gasteizko 300 pertsonaren ahotsak grabatu zituzten, zita bat egiteko eman litezkeen egoera desberdinetan erabiltzen diren hitzak eta esamoldeak gordetzeko.

Emaitzak oso txukunak dira. Ahotsa garbia da, ondo ulertzekoa, eta ondo betetzen du bere egitekoa, hau da, errenta aitortpena egiteko egun orduak jartzea.



Nekane San Migel, epaile euskaltzalea

Nekane San Migel, 40, epaile arrasatearrak Deustuan egin zituen Zuzenbide ikasketak. Hamabost urtez letradu moduan egin zuen lan Arrasaten eta Eibarren, lan eta ezkontza gaitan. 1991n epaile egin zen. Galizian urtebetez lan egin ostean, gaur egun Tolosako 3. Epaitegiko arduraduna da. Arrasaten bizi da senarra eta bi seme-alabekin.

Magistraturan emakumeak ikustea zaila ez bada ere, Tolosaldeko hirurak andrak dira, gaitzagoa da epaile euskaldunak aurkitzea eta are eta nekosoagoa alfabetatuak izatea. Nekane horietakoa dugu. EGA tituluaren jabe, dagoeneko bi sententzia eman ditu euskaraz, baina aitortzen duenez, baldintzak ez dira bat ere onak magistraturan euskaraz lan egiteko. Batetik,



Nekane San Migel

epaitegira doan pertsona kokilduta doa eta euskaraz egitea beste guztiek ez dakitenean oso gogorra

egiten zaio. Bestetik, oso gutxi dira euskara dakiten funtzionariak. Eta azkenik, justiziarena baliabide materialei dagokienez transferituta dagoen ardura izanik, paper eta eredu gehienak gaztelania hutsez etortzen zaizkie. Galizian zegoela, poliziaren atestadu guztiak galegoz jasotzen zituen. Tolosan oraindik inoiz ez du atestadu

bakar bat ere euskaraz jaso.

Euskaldunok hizkuntza bandera politikoa bihurtu dugula dio. Erreibindikatu egiten dugu, baina ez erabili. Hipokresia hutsa iruditzen zaio egoera horretan funtzionarien euskalduntzea eskatzea. "Hizkuntzaren normalizazioa lortzeko denok beharko dugu aldatu"

III. Ihardunaldi Medikoak

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak (OEE) antolatuta, III. Ihardunaldi Medikoak egingo dira Gasteizen, "Osasun arazoak zahartzaroan" gaiaren inguruan. Ihardunaldiak Villa Suso jauregian izango dira maiatzaren 7an eta 8an.

Hizlarien artean Ramon Saizarbitoria soziologoa eta Juan José Ferro, José Ignacio González, María Etxaniz, Imanol Kerejeta, Luis Galdos, J.M. Basterretxea, Begoña Indakoetxea eta M. Asier Garro doktoreak izango dira. Bigarren egunean Alberto Iturbe medikuaren hitzaldia eta ahozko txosten libreak irakurriko dira. Bukieran OEEren urteroko bilera egingo da.

OEE 1989an sortu zuten osasun arloan lan egiten duten profesionalek, osasun munduaren arlo guztietan eusk erabilpena indartzeko helburuarekin. Aurreko ihardunaldiak Donostian eta Bilbon egin ziren.

Euskara-Ingeles/English-Basque Hiztegia argitaratu du Fernando Perez de Viñasprek, Andres Erroren laguntzarekin. Erabiltzailearen lana errazteko asmoz, berba ingelesez ahozkerara erematen du, horretarako nazioartean onartutako sinbolo fonetikoak erabiliz. Hiztegi honek Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren dirulaguntza jaso du.

"Ikuska", On Joxe Migel Barandiaranek sortutako Etnologia, Historia eta Arkeologiako zientzi aldizkaria berriz plazaratu zen apirilean idazleek egindako biltzarrean. Hemendik aurrera hiru hilabetez behin emango da argitara, Euskal Herrian hitz egiten diren hiru hizkuntzatan: euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz. Ohizko lanekin batera, tesiak eta lan monografikoak ere atera nahi dituzte.

"Udalekuak 93" Aurten 1.160 ume arabar joango dira EAEko hiru foru aldundiek antolatutako 21 udalekuetara. 580 euskaraz biziko dira eta beste 580ak udaleku elebidunetan ariko dira. Iaz baino %10 gehiago, beraz. Egonaldi hauek uztailearen lehen eta bigarren hamabostaldietan eta abuztuaren lehenean izango dira. Eskari guztiak zozketa bidez erabakiko dira. Kostoa: 15.750 pta. bakoitzak.

Dirulaguntzak euskarazko argitalpenetarako. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Euskara Sustapenerako Zuzendaritzak ireki egin du dirulaguntzak eskatzeko epea, egunerokoak ez diren euskarazko argitalpenetarako. Iaz ez bezala, aurten Euskal Autonomi Elkartearen eginak diren argitalpenek zein Nafarroan edota Iparraldean argitaratutakoek jaso lezakete dirulaguntza.

Euskara sexista al da?

Hori da Emakundek "Hizkuntza, garapenbide" liburutxoan egiten duen itauna. Bere Ekintza Positiborako Egitasmoaren barruan, Emakumearen Euskal Erakundeak Euskal Autonomi Elkarteke hizkuntza ofizial bien bitartez egiten den sexu-bereizkeria salatu nahi du, berdintasunean oinarritutako gizarreak eskatzen dituen soluziobideak proposatuz.

Hizkuntzaren erabilpenak bi bide ditu emakumea bereizteko, dio Emakundek: batetik, emakumeak ikustezin bihurtzea, eta bestetik, hitz berak, femeninoa ala maskulinoa izan, konnotazio desberdinak izatea. Euskarak beste hizkuntza askok baino arazo gutxiago sortzen omen ditu. Pluralaren erabilpenean, adibidez, ez daukagu inolako arazorik, taldean emakume bat egonez gero, bera ere aipatzen dugulako: seme-alabak, senar-emazteak, jaun-andreak...



Genero gramatikalik ere ez duenez, esan liteke printzipioz konnotazio desberdinek sortarazten duten bereizkeria ere baztertuta geratzen dela gure hizkuntzan. Hala ere, baditu, beste hizkuntza guztiek bezala, bere arriskuak. Zenbait

gomendio egiten ditu Emakundek. Horrela, gizon hitza gizonezkoei mugatzea gomendatzen da. Gizaki, aldiz, gizonak zein emakumeak adierazteko erabil daiteke. -sa atzizkia (alkatesa, alargunsa...) mugatu egin beharko

litzatekeela uste du. Zergatik erabili, bestalde, meagizon, gerragizon edo legegizon gizakume zein emakume izan balitezke? Meatzari, gerrari edo legelari izan litezke ordeko onargarriak. Hitanoaz, ostera, zera dio, ez inoiz erabiltzeko talde bati zuzendutako mezuan, baldin talde horretan gizonak bakarrik ala emakumeak bakarrik dauden seguru ez badakigu.

Ainhoa Aranburu, irakasle donostiarrak euskara irakatsiko du Bartzelonako Hizkuntza Eskola Ofizialean. EHU-n Euskal Filologian lizentziatua da eta katalan hizkuntzaren jabe. Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiari ari izan da lanean.

Ruben Bareiro, soziolinguista paraguayarra Euskal Herrian izan da, hemengo hizkuntzen egoera aztertzen. Paraguayko Irakaskuntza Elebidunaren Aholku Batzordeko bateratzailea da eta guarani hizkuntzarentzat benetako ofizialkidetasuna eta onespina lortzeko egiten du lan.

Pedro de Yrizar, 83, ohorezko euskaltzain azkoitiarrak 70. hamarkadan egindako iparraldeko eta hegoaldeko goi nafarreraren eta erronkariaren aditz laguntzailearen azterketa plazaratu du lau liburukitan. Aurkezpen ekitaldian Euskaltzaindiaren erreko domina jaso zuen.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia
Wellingtongo Dukea, 2
01011 Vitoria-Gasteiz
(Araba)

Euskaraz
Gazteleraz

Izen-deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Kodea:.....

Lurraldea:.....

Tel.:

Bideo-katalogo Orokorra

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak 1993rako argitaratu duen katalogoa. Euskaraz kaleratu diren bideo guztien zerrenda dakar, bai eta aurten atera diren nobedadeena ere: *Indiana Jones eta azken gurutzada*, *Robin Hood: lapurren printzea*, *Hara nor dabilen hizketan*, *Lucky Luke ausarta...*



Galdezka

Diru kopuruak

G Ba al dakigu euskararen • sustapenerako erabilitako diru kopurua zenbatekoa den?

E Bai, atera ditugu kontuak s eta • horren berri Legebiltzarrari eman diogu: 2.290 pta. pertsonako eta urteko, 47.000 milioi pta. inguru. Zeozer argi badakigu, horixe da, zenbat gastatu den hamar urte hauetan. Hala ere, gastatu den kopurua ezezik, lortu diren emaitzak ere ezagutu beharrekoak dira; azken batean, dirua ondare urria da eta gainera herriarena. Baina era berean, gustatuko litzaidake jakitea zenbat gastatu den azken urteetan industriaren birmoldaketan edota errepideak egiten. Ez dut uste inork ere jakingo duenik, eta are gutxiago zenbat kostatzen zaigun zergadunoi lanpostu bat mantentzea.

Elebitasuna bultzatzeko gastatu den diruari buruzko informazioa, beraz, oso-osorik eman behar da, noski; baina, arren, ez dadila izan eskatzen eta alderatzen den informazio bakarra. Bestela, pentsatzen hasiko gara dagoeneko askok guk baino lehen susmatu dutena, alegia, zerbitzu publiko guztien emaitzak ez direla modu berean neurtzen, eta diskriminazioarekin gertatzen den bezalaxe, zenbaitzuren salaketak aitzakiak besterik ez direla.

M. Karmen Garmendia.
Hizkuntza Politikarako
Idazkari Nagusia

Klasiko unibertsalak euskaraz

Klasikoak, S.A. irabaz asmorik gabeko elkarte BBVk, Euskal Autonomi Elkarte aurrezki kutxek (BBK, Kutxa eta Vital), Euskal Herriko Unibertsitateak eta Deustuko Unibertsitateak gauzatu zuten 1991n. Pentsamendu unibertsaleko ehun obra aipagarrienak euskaraz plazaratzeko helburuaz sortu zuten.

Bere lanean kalitaterik eta zehaztasunik handiena bermatzeko, batzorde zientifiko bat eratu da. Bertan entzute handiko adituak ari dira lanean, bilduma zuzendari batek bateratuta. Itzulpenak jatorrizko hizkuntzetatik egin dira.

Klasikoak elkarteak berrogeita hamar aleko lehen edizio berezia aurkezten du orain. 1992aren

bukaeran Entseiuak I, Utopia, Honela mintzatu zen Zaratustra eta Sisyforen mitoa argitaratu ziren. Berkleyren Giza ezagutzari buruzko printzipioak eta Platonen Politeia argitaratze bidean daude. Geroago Erasmus, Freud, Rousseau, Levi-Strauss, Hobbes... etabarren obrak etorriko dira.

Klasikoak elkarteak ordaintzeko hiru bide eskaintzen dizkie harpidetza egin nahi dutenei:

- 150.000 pta/7.500 liberako ordainketa bakarra, bildumako berrogeita hamar tituluengatik.
- Sei ordainketa 1997a bitartean.
- 58 hileko, 3.150 pta/160 liberakoak bakoitza.

Argibide gehiago: Klasikoak, S.A. S. Vicente kalea, 8 Albia I, 3. 9. dep. 48001 Bilbo.

✓ Kontutan hartzeko

• **"Tolosan euskaraz" II. ihardunaldiak.** Euskararen erabilera bultzatzeko egiten diren ekimenen berri emango da. Maiatzaren 5, 6 eta, 7an izango dira, Tolosako Udalbatza aretoan.

• **Valentziako Hizkuntza Zerbitzuetako Ihardunaldiak.** Autonomia desberdinetako hizkuntza politikarako adituak ere

gonbidatu dituzte. Alicanteko San Joanen, maiatzaren 27, 28 eta 29an. Tfnoa.: (96) 386 30 50.

• **"Bizkaiko euskera bizkaiera?"** gaiaren inguruan ihardunaldiak izango dira Bilbon maiatzaren 4tik 8ra, Bilboko Udalak eratuta.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜISTICA